



## **2022AN ZEHAR MASKOTAK ANTZUTZEKO KANPAINARAKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA**

### **Oinarriak**

#### **1. artikulua. Deialdiaren xedea.**

Deialdi honen xedea nahi ez diren sabelaldien ondoriozko animalien abandonatzea eta gaizki tratatzea gutxitzea da, horretarako txakur eta katuak (arrak eta emeak) kirurgia konbentzionalaren bidez antzutzeko diru-laguntzak emango dira.

#### **2. artikulua. Betebeharrak.**

Diru-laguntza hau eskatzen duten pertsonak Aranguren Ibarrean erroldatuta egon behar dute eta antzutuko den animalia jabeak izan behar dute.

Familia unitate bakoitzeko gehienez ere bi abererentzako diru-laguntza eskatu ahal izango da deialdi bakoitzeko, eta bigarren eskabidea ezin izango da aurkeztu lehenengoa aurkeztu eta lau hilabete baino lehen.

Ez dira diruz lagunduko ebakuntza aurreko edo osteko gastuak.

Eskaeren kopuruak erabilgarri dagoen zenbateko ekonomikoa gainditzen badu, lehentasun hurrenkera honi jarraituko diogu:

1. Finketan edo baratzeetan bizi diren animaliak izatea.
2. Errenta baxuenak.

Egoera berean, lehentasuna izango du eskaera lehenago aurkeztu duenak.

#### **3. artikulua. Eskatzeko modua eta epea.**

Diru-laguntza eskabideak Aranguren bailarako Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu ahal izango dira (Mutiloa plaza z/g, Mutilva).

Antzutzeko-kanpainaren iraupena hura argitaratzen denetik xede horretarako partida ekonomikoa amaitu artekoa izango da.

#### **4. artikulua. Dokumentuak.**

Interesdunek eskabide bat aurkeztu behar dute, dokumentu hauekin batera:

1. Jabearen NANA.
2. Familia unitatearen Errenta Aitorpena.
3. Animalia osasun-kartilla.

Behin diru-laguntza onartu denean, kobratu ahal izateko, eskabide bat aurkeztu beharko da, jabearen izenean dagoen ebakuntzaren faktura batekin eta dirua jasotzeko kontu zenbakiarekin batera.

Aranguren Ibarrean dauden eta kanpaina honetan lankidetzan ariko diren bi albaitari-kliniketako edozeinetan egin daiteke kirurgia ebakuntza (Hospital Veterinario San Fermín eta Hospital Veterinario Pamplona); baita eskatzaileak aukeratutako edozein beste albaitari-klinikan ere.

Datuak deialdi honen 1. ERANSKINEAN daude.

### **5. artikulua. Instrukzio-organoa eta ebazpena.**

Deialdi honen instrukzio-organoa Aranguren Ibarreko Udaleko Ingurumen batzordea izango da, eta berak egiaztatuko du aurkeztutako eskaerek baldintzak betetzen dituztela.

### **6. artikulua. Finantzaketa: laguntza mota eta zenbatekoa.**

Finantzaketaren zenbatekoa aldatu egingo da eskatzailea hartzen duen familia unitatearen errentaren arabera. Zehazki, kontuan hartu beharreko tarteak hauek dira:

*Per capita* diru-sarrerak IPREMeraino .....gastuaren %60 gehieneko 120 €tara arte.

*Per capita* diru-sarrerak IPREMetik IPREM + %30erain... gastuaren %40 gehieneko 120 €tara arte.

*Per capita* diru-sarrerak IPREM + %30etik aurrera..... gastuaren %20

Edozein kasutan, emandako laguntzaren gehieneko kopurua ezingo da 120 € baino gehiagokoa izan.

### **7. artikulua. Errekurtsoak.**

Deialdi honen, bertako oinarrien eta bertatik eratortzen diren administrazio-egintzen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Aranguren Ibarreko Udalean, errekurtsioa jarritako egintza argitaratu edo jakinarazi den egunaren biharamunetik aurrera hilabete bateko epean.



## **I. ERANSKINA**

### **Kanpainan lagunduko duten albaitari-klinikak:**

Anicura San Fermín Hospital Veterinario  
Kale Berria 27, industrialdea, 31192 Mutiloa (garai bateko Mutiloagoiti)  
Telefonoa: 948230802

Hospital Veterinario Pamplona  
Industrialdea, A kalea 115, 31192 Mutiloa (garai bateko Mutiloabeiti)  
Telefonoa: 948240304